



Trebakuntza 2008/2: MAIUSKULAK ETA MINUSKULAK

Udal idazki askotan letra larriak (maiuskulak) eta xeheak (minuskulak) oker idatzita ikusi ditugu (hilabeteetan, karguetan...).

Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *2006ko Ekainean, Uda hasieran, gertatu zen ezbeharra.
2. *Bilera egin dute Alkateak eta alderdietako ordezkariak.
3. *Espainiako Erregeak eztabaida izan du Venezuelako presidentearekin.
4. *Elkarretaratzea Donibane Enparantzan izango da.
5. *Leitzako udalak hainbat udaletako eredu jarraitu du.
6. *Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... ordua iristean, hizlaria ez zen azaldu.
7. *291/2005 dekretua, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako...

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **Hilabeteak, asteko egunak eta urtaroak** beti letra XEHEZ idatzi behar dira.
Ad. 2006ko **ek**ainean (eta ez ***Ek**ainaren), **uda** hasieran (eta ez ***Uda**), gertatu zen ezbeharra.
2. **Kargu ofizial eta akademikoak** beti letra XEHEZ.
Salbuespenak: Arartekoa eta Lehendakaria.
Ad. Bilera egin dute **alk**ateak eta alderdietako ordezkariak (eta ez ***Alk**ateak).
3. **Tituluak** beti letra XEHEZ.
Ad. Espainiako **er**regeak eztabaida izan du Venezuelako presidentearekin. (eta ez ***Er**regeak).
4. **Leku-izenetan**, izen propioa letra LARRIZ eta izen arrunta XEHEZ.
Ad. Elkarretaratzea **D**onibane **e**nparantzan izango da.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org



5. **Instituzioen izen ofizialak** singularrean larriz eta pluralean xehez:
Ad. *Leitzako Udalak hainbat udaletako eredia jarraitu du.*
6. **Etendura puntuak**, esaldiari bukaera ematen badiote, ondoren datorrena letra LARRIZ.
Ad. *Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... Ordua iristean, hizlaria ez zen azaldu (eta ez *ordua).*
7. **Dekretu, lege eta erabaki** jakinak badira, LARRIZ; aipamenak badira, XEHEZ:
Ad. *291/2005 Dekretua, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako... (eta ez *dekretua).*
Ad. *Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi zuen 2000ko dekretua (eta ez *Dekretua).*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edota gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrena arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org